

## Patronalak eta gobernua bat datoz soldaten aurkako eraso estrategian

# “EZ DA POSIBLE 2013ko UZTAILAREN 5ean KONTURATZEA PATRONALA NOLAKOA DEN”

### 0. SARRERA

**L**ege laboralen eta negoziazio kolektiboaren erreformek kaleratzea erraztu eta merkatu dute, malgutasun laborala areagotu, eta gainera negoziazio kolektiboko arauak erabat aldatu dituzte. Esaterako:

■ **Enpresa-hitzarmenak sektorialen gaintik aplikatzeko lehentasuna dutela ezarri dute, gai nagusietan (soldata, lanaldia, etab.).** Hots, enpresa-hitzarmen baten bidez hitzarmen sektorial batean jasotako baldintzak okertzeko aukera izango da. Horrenbestez, hitzarmen sektorialak ez dira gutxienez bermea izango.

■ **Lehentasuna eman zaie estatu mailako hitzarmen sektorialeki,** lurraldeetako hitzarmen sektorialekiko, eta beraz, aurreko egoera irauli dute, Langileen Estatutuko 84. artikuluan araututa zegoena.

■ **Enpresari aukera ematen diote hitzarmenak ez aplikatzea eskatzeko,** eta langileen ordezkariekin akordiorik ez badago, hark derrigorrezko arbitrajera jo dezake.

■ **Hitzarmen ultraaktibitatea ezabatu dute.**

Hitzarmen bat berritzen ez bada, aurkako itunik ezean, hamabi hilabeteren buruan bere iraunaldia amaitu egiten da.

ELAk aldaketa hauen aurka jo du hainbat eratako mobilizazioak eginez (greba orokorrak barne). Ergelkeria bat da, eta ebidentziaren aurka doa, esatea ELAk gogoz hartzen duela joko-arauen goitik beherako aldaketa hau, beronen xedea langile-klasea ahultzea eta sindikalismoa akabatzea izanik.

Gogora arazi nahi dugu honek guztiak ardura politikoak badituela, erreformak PSOEk eta PPK onartu baitituzte (Zapaterok eta Rajoyk, alegia), eta Espainian agintzen zuen alderdia minorian zegoenean EAJren laguntza izan dute (estatu mailako hitzarmen sektorialen lehentasunari dagokionez). Bestalde, nabarmena da patronalak eskatu eta txalotu dituela aldaketa hauek guztiak; gainera, erreforma bakoitza lortu ahala haratago joan beharra aldarrikatu du, jakinik unean-uneko gobernua beti dagoela horretarako prest. Horretan ari da oraintxe, beste bat exijitzen.

Uztailaren 5ean zabaldu zen oraingoz ez dela adostasunik izan Lanbidearteko Akordioa (LA) iristeko bigarren saioan. ELAk honako zehaztasunak egin nahi ditu:

## 1. ELAK MAHAI HORRETAN EZ DU PARTE HARTU.

ELA ez da oztopo izan aldeak akordio batera iritsi zitezten. Ez da saio honetan, ez aurrekoan egon (2012). Parte hartu duten sindikatuak akordioak ixteko bazeukaten gehiengo nahikoa. ELAk azaldu zuen zergatik ez zuen parte hartu: batik bat, gure ustez ez zegoelako inolako baldintzarik gutxieneko oreka zuen akordio baterako, gobernuak zuzenean ematen baitiete patronalei nahi duten guztia. Areago, patronalak Lanbidearteko Akordioak erabili nahi izan ditu malgutasun laboral handiagoa lortzeko edota enpresetako ekintza sindikala eragozteko (uztailaren 5eko bileran mahairatu zuen agiriak hala erakusten du). ELAren ustez hau argi geratu zen patronala gurekin Lanbidearteko Akordioetaz hitz egiten hasi zen unetik beretik (2011ko iraila-azaroa).

Erreformek askoz ere botere handiagoa eman diete enpresarioei, soldaten jaitsiera ezarri eta defentsa kolektiboa ahultzeko.

ELAk lehen unetik erabaki zuen erreformak mugimendu sindikalari jotzen dion erronka nagusia, mobilizazioaz gainera, antolakuntzari zegokiola. Erreformaren egile intelektualek argi asko esan zuten: sindikatuak ez dira enpresetara egokitzeko gauza izango. ELAk ulertu zuen erronka hori. Joan den astean gure antolakundearen egokitze prozesu bat burutu dugu, sindikalismoarentzat askoz latzagoa izango den oraina eta etorkizunari aurre egiteko, eta jakinik interbentzio sindikalaren lehia ez dela hordagoa handira jota irabaziko. Hots, enpresetan oinarri erreala antolatua izan ezean, ez dugu inon baldintzatzeko ahalmenik izango.

Hiru federazioen kongresuetan babes handia izan zuten proposatutako egokitze organizatiboek. Ager-toki berria basatia da, eta horri aurre egiteaz eta soldatei egiten zaien eraso ez babesteaz gainera, antolakundea moldatzen ari gara gure herriko langile-klasearentzat tresna egokia izaten jarraitzearen.

## 2. EUSKO JAURLARITZAREN GESTIOA.

Uztailaren 4an, Lehendakaria Confedebaskekin biltzea zela jakin zenean, pentsa zitezkeen akordioa eginda zegoela; oztopoak gainditu zituztela patronal honekin egin daitezkeen gauza bakarria ixteko: Espainian egiten diren moduko akordio bat, zeharo lausoa, eduki konkreturik gabea, eta interes patronalen aldeko erretorikaz jantzia.

Haatik, uste hori ustela gertatu da. Behar bada gobernuak erruak banatzeko asmoa izango du eta ekidistantzia mantentzen saiatuko da inor ez haserretzeko, batik bat patronala. Akordiorik ezaren zergatia nabaria da: patronalak bere interesa besterik ez du buruan, eta ez dauka inongo akordioen beharrik. Ez du akordiorik nahi erreformen eragina muga-tzeko izango bada. Aitzitik, ausartu egiten da esatera haratago joan behar dela, enpresetako ekintza sindikala eragozteko.

Jaurlaritzak bestela erantzun dezake: gobernu-ekintza langileen alde garatuz. Esaterako, argitaratzeke dagoen Hitzarmen Kolektiboen Inplikazio Batzordeari buruzko dekretuan benetako oztopoak jarriaz enpresarioek adostutakoa ez betetzea erabakitzen duenerako. Hala egiten ez badu, erretorikaz beste, arlo laboralean arauak egiteko dituen aukera txikiak ere patronalaren mesedetan erabiliko ditu berriro. Orain arte hori egin izan du.

Eusko Jaurlaritzak langileentzako oso mesedegarria litzatekeen beste erabaki bat har dezake: enpresei exijitza, herri-administrazio berak sustatzen duen azpi-kontratazio eremuan, adostutako lan-baldintzak aplikatu ditzatela, subrogazioa barne.

ELAk hainbat arrazoi dauka Jaurlaritzari kargu hartzeko: batetik, kritika sindikatu honi baino ez dio egiten; bigarrenik, ezkutatu egiten du gobernuak proposatu zuen akordioa patronalaren betoagatik ez zela gauzatu, eta hirugarrenik, patronalari ez dio inongo ardurarik leporatzen. Deitoratzeko da ere Jaurlaritzak egiten duen klase enpresarialaren defentsa orokorra.

## 3. SOLDATA JAITSIERA, GOBERNUEN, PATRONALAREN ETA LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN HELBURUA.

Erreformak soldatak jaisteko egin dira, eta gure ustez, patronalaren helburu horrekin bat datoz Eusko Jaur-laritzaren Lan Harremanen Kontseilua (LHK). Aburto sailburuak soldaten jaitsieraren alde egin du, eta en-plegua mantentzeko dela esan du. Bestalde, LHKren presidenteak adierazi du barne-debaluzio (soldata jaitsiera) prozesua, "zeinetan murgilduta gauden", adostu beharrekoa dela. ELAk erabat ukatzen du soldatak direnik ekonomiaren ajea, edota lehiakortasun ezaren arrazoa, enpresaburuek esaten duten legez.

Datu guztien arabera, soldatek aberastasunean duten zatia murrizten ari da etekin enpresarialen mesedetan, baita krisi aldi honetan ere. Hori gertatzen delarik, beste zenbait eragile gutxiarekin batera, ELAk aldarrikatzen du aberastasuna banatzeko modua justu-goa izan behar dela. Aldiz, patronalarentzat eta gobernuentzat enpresen irabaziak ezin dira ukitu.

ELAren iritziz soldaten jaitzierak are enplegu gehiago suntsitzea eragingo du, murrizketa sozialak (diru-bilketa jausi egingo baita), baita pentsio urriagoak ere (hedatu egingo baitira oso ordain eskaseko lan prekarioak, Gizarte-Segurantzarako kotizazio apa-lekin edo bat ere kotizaziorik gabeak). Soldata jaitsieraren alde eginda gizartearen zatirik handiena txirotu egiten da. Soldata jaitsieraren defentsa posizio ideologiko bat da, zeinak egungo egoeran langabezia maila handiaz baliatu nahi duen soldatak diziplinatzeko.

ELArentzat ez da harrizketa Eusko Jaurlaritzak helburu honetan ere patronalaren alde egitea. Ez da harrizketa, zeren gobernu horixe ari baita egiten euskal administrazioko langileekin (soldata jaitzierak, lanaldi luzapena...). Jaurlaritzaren politikak arlo publikoan negoziazio kolektiboa txikituta utzi du eta enplegu ugari ari da suntsitzen, zuzeneko zein zeharkako lanpostuak. Hain zuzen, Confebaskek Urkulluren gobernuaren jokabidea eredutzat hartu du arlo pribatua ezartzeko. Confebaskek arlo pribatua gobernuak publikoan egiten duena egin nahi du.

Txunditzekoa da ekonomia errealean kreditu gabeziak enpresa-proiektuak pikutara joatea dakarren bitartean doikuntza bakarra soldatetan proposatzea, eta gobernuaren kritika soilik gure moduko erakundeoi egitea, hots, neurri horien kaltearen interesak eta helburuak ordezkatzen ditugunoi.

#### 4. PATRONALAREN ZINISMOA.

Patronalaz gauza asko esan daiteke, baina ez argi hitz egiten ez duenik. Behin eta berriz esan du erreformez baliatuko dela hitzarmenak goitik behera aldatzeko (CEOE); enpresarioei gomendatu die “ez dezatela negoziatu, beste erremediorik ezean”; azken hau “hau da beti amestu izan dugun erreforma” esan ondoren, edota patronalak “35 urteko zurruntasun laborala” pairatu duela? (ADEGI); gomendioak egin ditu enpresetan erreforma lotsarik gabe erabil dezaten (CEBEK eta ADEGI). Nola liteke sindikatu batzuk orain, 2013ko uztailean 5ean, konturatzea zer nolako patronala daukagun?

Patronalak bere alde argudiatu nahi du esanaz “ez duela soldata jaitzierarik” proposatu. Hori gezurra da; ultraaktibitatearen amaia baliatuz negoziazio kolektiboan ezarri nahi duen soldata izoztea murrizketa da, erosteko ahalmena gutxitzen baitu. Gainera, patronalak badaki, ELAK bezalaxe, edozein unetan eta hainbat bidetatik hitzarmen sektorialeko edukia aplikatzeari utz diezaiokela (derrigorrezko arbitrajea, soldatak jaitzeko funtsezko aldaketa, sektorearen mailatik behera dagoen enpresa-akordioa...). Izan ere, soldata murrizteko erabaki hau dagoeneko enpresa askotan ari dira pairatzen.

Confebaskek jarrera zinikoa Eusko Jaurlaritzarekiko ere badu. Baina erantzunik gabe. Patronalak badaki gobernuak ezer gutxi egin dezakeela bere aurka (finantziario publikoko iturriak aldatu ezean, esaterako langileen etengabeko prestakuntza sistemarekin lotuta daudenak; honetan argi geratu da organizazioak finantzatzeko besterik ez duela balio), axola duen legedia Madrilen egiten delako, eta badakielako han PP beste erreforma laboral bat prestatzen ari dela. Badaki hurrengo erreforma horren helburua lanmerkatuan jendea soldata miserableen truke eta presazioak jasotzeko eskubiderik gabe sarraraztea dela.

Baina patronalak are gehiago nahi du. Confebaskek Lanbidearteko Akordiorako aurkeztu zuen agiria iraingarria da. Ezin harroago, eta ahulezia politikoa sumatu duelarik, gehiago nahi du. Proposameneko hirugarren artikuluan honakoa esatera ausartzen da: “negoziatzeko esparru berriak irekitzean eta galdu ahal izan direnak berreskuratzean... inola ere ez da gatazkarik sortuko, eta hauei buruzko negoziatioa has-teko beharrezkoa izango da negoziatzeko gehiengo duten erakunde legitimatuak, alde sindikal zein patronaletik, ados egotea”.

Beren betoarekin ukatu nahi dute beste esparruetan negoziatzeko aukera. Enpresa esparrua irekitzeko ahalmena soilik euren esku egotea nahi dute, betiere soldatak jaiste aldera; inoiz ez langileen eta sindikatuen esku utzi, hobetzeko bada. Badaezpada ere, ausartu egin dira esatera “inola ere ez da gatazkarik sortuko”. Hau esaten duenak erreibindikazio guztiak amaitzea nahi du.

Lanbidearteko Akordioaren aurreko saioan (2012), Zapaterok eman zionaz gainera, Confebaskek akordioa ixteko derrigorrezko arbitrajea ere exijitu zuen. Antza, orduan sindikatuek uko egitean ez zen akordioarik izan. Geroxeago, alde sindikalak eman ez zion patronalak Rajoyren erreforman lortu zuen. Dena, eskatzen duen guztia, lege bitartez lortzen du.

Confebaskek errudunak bilatzen ditu Espainiakoa ez den errealitate sindikal honetan. Argi dago patronalaren interesa dela EAera eredu espainiarra ekartzea, non akordioak hutsalak diren, eta gainera ez duten derrigortzen. Asmo honek, beraz, ez dauka inongo zeri-kusirik Lan Harremanetako eta Babes Sozialeko Euskal Esparruarekin.

Confebaskek dio EAEn ezin direla egin CCOOek eta UGTk Espainian sinatzen dituzten moduko akordioak (esaterako, ultraaktibitateari buruz CEOErekin sinatu zena, zeinari buruz gero sinatu zuten sindikatuek esan zuten “partxe bat eta murriztegia zela”). Baina deigarria da guri errua bota eta gero, Confebaskek berak aitortzea akordio hura gomendio hutsa baino ez zela. Dirudenez, maiatzean espainiar estatuko akordioa go-

raipatzen zutenek (sinatzaileak, hots, patronala, CCOO, eta UGT, komunikabide nagusiak edota Aburto sailburua bera, zeina inbiditan baitzegoen Espainiako akordioaren modukoa bertan lortu ezinagatik), gure sindikatuari kritika egiten jarraitzen badute ere argi geratu da ELAk akordioari buruzko epai zuzena egin zuela.

Kontrolatzen dituzten negoziazio sektorialeko mahaietan Confebasken eta bere lurralde-erakundeen (ADEGI, CEBEK eta SEA) jokabidea bat dator Lanbidearteko Akordioan agertu duten jarrerarekin: akordioak blokeatu egin ditu, "sektoreak ixteko" beharra medio soldata jaitsiera eta erreforma bete-betean aplikatzeko babes orokorra lortu nahian. Itxi diren sektore-hitzarmen gehienak (gutxi izan dira) ez dituzte Confebaskeko patronaleko kideek sinatu.

## 5. CONFEBASKEK BESTE PATRONALEI UKATU EGITEN DIE HITZARMENAK NEGOZIATZEKO GAITASUNA.

Zer iritzi du Urkulluren gobernuak Euskal Dendak patronalak igorri dion gutunaz? (bertan elkarte honek esaten du Confebaskek eragotzi egiten diola Merkataritzako hitzarmenak negoziatzeko aukera).

ELAk duela zenbait aste argitaratu zuen Euskal Dendekin oso akordio positiboa itxi zuela, eta Confebaskeko patronalek ukatu egiten ziotela elkarte honi negoziazio-mahaietan egoteko aukera.

Bazterketa honek ELAren ustez bi kontu oso garrantzitsu islatzen ditu. Batetik, ez da egia ELArenkin posible diren akordio bakarrak Confebaskek inposatu nahi dituenak direnik; bestetik, Confebaskeko patronalek enpresarioen ordezkariak eskusiboa duten esparruetan beren monopolioaz baliatzen dira inolako orekarik izan dezakeen akordio orori betoa ezartzeko.

## 6. ARRASTOTIK ATERA EZINEAN.

CCOOek, LABek eta UGTk erabaki zuten, baita azken erreforma baino lehenago ere, negoziazioa jorratzea soilik Confebaskek betoa duen esparruetan, hots, Lanbidearteko Akordioan eta sektore mailan.

Uztailaren 7a igarota, are ulergaitzagoa gertatzen da sindikatu horiek uko egitea enpresetan negoziatze-ari, sektoreetan lor litezkeen emaitzak gorabehera.

Harritzekoa da uztailaren 7a iritsi behar izatea sindikatu batzuk ikusteko Lanbidearteko Akordio batek ezin duela bermatu sektore-hitzarmena enpresa guztietan derrigor bete beharreko gutxieneko gisa.

Halaber, sindikatu batzuk esan izan dute enpresako ituna hitzarmenaren pareko zerbait zela. Hau ez da

egia. Ikusi besterik ez dago ADEGIk eta CEBEKek enpresei bidali dieten informazioa jabetzeko ez direla gauza bera, hitzarmen bat ez aplikatzeko baldintzak askoz zorrotzagoak direla itunen kasuan baino. ELAren moduan jakinaren gainean bazeuden, zergatik ukatu dute langileei gisa honetako oinarritzko kontuak azaltzea? Zenbat energia ez ote da alferrik galdu enpresetan azaldu ezinekoa azaldu nahian!

CCOOek, LABek eta UGTk, beren gehiengoarekin, lehenasuna eman diote Confebaskekin biltzeari, eta beren proposamen zein mobilizazioak horri begira egin dituzte. Alabaina, zer dela eta jokatu beharko luke Lanbidearteko Akordioari buruz Confebaskek CEOEk egiten ez duen moduan, erakunde bera izanik? Gure iritziz, bi hutsegite handi egin dituzte: ez dute neurtu norekin ari ziren harremanetan, eta ez dira kontsekuente izan erreformaren aurka 2012ko martxoko greba orokorrean sindikatu guztiok egin genuen analisiarekin. Guztiok esan baikenuen erreforma hark "negociazio kolektiboa, orain arte ezagutu dugun moduan, txiki-txiki eginda" uzten zuela.

Are zailagoa da ulertzea patronal horri berari, hauspotzen ari den inboluzio soziolaboral nabarmen hau gertatzen ari den artean, sindikalismotik "eredu ekonomiko eta sozial berri bat partekatzeko" proposamena egitea. Edota, halaber, Lanbidearteko Akordioaren bila, bigarren mailako kontutzat hartzea Madrilen zein eduki izango duen ez dakigun beste erreforma laboral bat ari direla prestatzen.

## 7. NAFARROAKO EREDUA.

Nafarroari dagokionez, CEN, UGT eta CCOOek duela gutxi sinatu duten Akordio Intersektorialak erreforma onesten du, eta honelako itun baten mugak zeintzu diren agerian uzten du.

Patronala erreformaz baliatzen ari den une honetan, soldatak jaisteko eta lan-baldintzak aldatzeko, honelako akordioak azaltzeko zergati bakarra dago, sinatzaileek jasotzen idtuzten diru-laguntza publikoak. Horregatik, UGTren eta CCOOen triumfalismoa negoziatio kolektiboaren egoerari dagokionez errealitatetik at dago, faltsua da, eta arduragabekeria islatzen du. Bi sindikatuok dioten moduan esatea patronalarekin hitzartu dutela ezen erreforma laborala ez dela erabiliko lan-baldintzak desarautzeko sinesgaitza eta barre-garria da.

Gogoratu beharra dago patronala erreformarekin pozarren dagoela, izan ere, merkeago kaleratzeaz gainera, lehen fase honetan soldatak murrizteko eta lan-baldintzak aldatzeko aukera ematen baitio, Langileen Estatutuaren 41. artikulua medio; enpresetan xantaila egin dezake kaleratzeekin. Eta gero jauzi bat egingo du 82. artikuluari esker, hitzarmena ez aplikatzeko

beta ematen baitio klausularen batek berariaz aurka-koa arautu ezean.

ELAren iritziz, hitzarmen sektorialetako ultraaktibitatearen inguruan langileei ez zaie egia esaten. UGTK eta CCOOek arrakasta bailiran saltzen dituzte sinatzen ari diren hitzarmen sektorialak, hauek sinatu eta biharraonean enpresek ez aplikatzeko aukera daukaten arren.

Gogoeta egin ote dute patronalak zergatik sinatzen dituen hitzarmen sektorial hauek, inongo presiorik ez dagoelarik? Ez digute sinetsaraziko nafar patronala besteak baino hobea denik. Azalpena beste bat da: UGTK eta CCOOek, batetik, soldatetan moderazioa edo izoztea onartzen dute, baita beste lan-baldintza batzuk murriztea ere, eta bestetik, hitzarmen sektorialetan ez dute klausularik sartu erreforma laborala mugatzeko, ezta zati batean ere. Ez dago hitzarmena ez aplikatzeko erabakia eragozteko klausularik, ez dago mugarik gabeko ultraaktibitatearik, eta ontzat ematen da erreforma, salbuespen kasuan derrigorrezko arbitrajea aintzatesten baita.

ELAren ustez ezin da jokatu erreforma laborala izan ez bailitzan. Oinarritik erantzun behar zaio, aurre egiteko aukera ematen duen esparru bakarretik alegia, enpresa eta lantokietatik.

## 8. ENPRESAK HASI DIRA IRAGARTZEN UZTAILAREN 7RA ARTE INDARREAN ZEUDEN BALDINTZEI ERASO EGITEKO BORONDATEA.

Confebasken gomendioa aintzat hartuta, enpresa asko ari da iragartzen beren hitzarmenen indarraldia amaitu dela.

Honi buruzko komunikazioak hiru taldetan sailka daitezke:

1. Baldintzak erabaki unilaterial baten ondorioz data jakin bateraino mantenduko dituztela iragartzen dutenak.
2. Soilik baldintza batzuk mantenduko direla eta gainerako edukietan araudi subsidiarioa (esparru handiagoko hitzarmena edo oinarritzko legedia) aplikatuko dela diotenak.

Bi kasu hauei dagokienez, gehitu behar da baldintzak mantenduko dizkietela uztailaren 7an alta emanda zeuden langileei, ez hortik aurrera sartzen direnei.

3. Oraintxe bertatik hasita esparru handiagoko hitzarmena bete-betean aplikatuko dutenak, horrekin lotuta dauden soldata murrizketak barne.

Jakinazpen hauei gehitu behar zaie Confebask patronalaren aholkuz ere zenbait enpresak iragarri dutela ultraaktibitatea amaitu egin dela nahiz eta berari dagokion hitzarmenean -enpresa zein sektorekoa izan- uztailaren 7an ez iraungi. Adibidez hala jokatu dute EAEko itunpeko irakaskuntzako eta Bizkaiko Arte Grafikoetako patronalek. Jarrera hau erreformatik askoz harago doa.

ELAk indarrean dauden baldintzei eraso egiten zaien esparru bakoitzean borrokara joko duela hitz ematen du. Egiten den ekintza sindikalaren helburua, ahal dugun esparru guztietan, enpresa-hitzarmen bat lortzea izan behar da, bermatzen duena adostutako edukiak beteko direla.

Patronalak, oraingoan ere, argi uzten du ez daukala negoziatzeko borondaterik, eta ultraaktibitatearen amaieraz bera erabaki zenean ezarritako helburua lortzeko baliatuko dela: Soldaten jaitsiera errazteko. Erabaki enpresarial hauei aurre egin behar diegu. Soldata jaitsierari men eginez gero, enplegu gehiago galduko da.

ADEGIk esaten duen moduan, soilik "beste aukerarik ez dutelako" negoziatzeko asmoa badute, lehentasuna eman behar zaio ekintza sindikalari negoziazio hori behartzeko.

ELAk uste du funtsezko ondorio batzuk atera beharrekoak direla:

- Erreformen helburua soldata jaitsiera eta errealtate sindikala deuseztatzea da.
- Negoziatio kolektiboan soldaten erosteko ahalmenari eutsi behar diegu. Hau da enpleguaren alde egiteko modurik egokiena.
- Lanbidearteko Akordio batek ez du ziurtatzen sektoreak gutxieneko bermea izatea. Sektore-hitzarmena ez da dagoeneko enpresa guztiek derrigor bete beharreko akordio bat.
- Enpresa-hitzarmenak enpresa-itun batek baino askoz hobeto babesten ditu bertan jasotako lan-baldintzak.
- Negoziatio kolektiboan exijitu egin behar ditugu erreformaren edukirik gordinenak aplikatzea saihestuko duten klausulak.

## II. ONDORIOAK

**1.** ELAren ustez, mugimendu sindikalak aurre egin behar dio “soldata-debaluazio”ari buruz gobernuak eta patronak erabiltzen duten diskurtsoari. Posizio ideologiko hau ezin dugu onartu. Izan ere, ontzat emanez gero, erabat txirotuko gaitu eta are enplegu gehiago galduko da. Ez da egia soldata jaitsierak onartuta enpleguaren alde egiten denik; aitzitik, enpleguak defenditzeko soldatei eutsi behar zaie.

**2.** Erreforma errealtate sindikala deuseztatzeko egin dute. Patronalak ez du nahi enpresetan bere erabaki unilateralak mugatu edo baldintzatuko duen sindikalismorik.

**3.** ELArentzat nabarmena da soldaten aurkako erasoan gobernuak eta patronala bat datozela. Horretan ari da Eusko Jaurlaritza bere langileekin, eta horixe egin nahi du patronalak arlo pribatuan. ELAren ustez gobernuaren bitartekaritza egokia da, baina sinesgarriagoa litzateke bere ardurapeko esparruetan patronalaren jokabide berdina izango ez balu. Jaurlaritzari exijitzen diogu arlo publikoan berrezar dezala negoziazio kolektiborako eskubidea.

**4.** Confebasken jarrera argia izan da, hasieratik; ez dugu 2013ko uztailaren 5ean ezagutu. Erreformak zer esan nahi duen jakinik, esan du “ez dezatela negoziatu, beste erremediorik ezean”. Argiago esan ote liteke? Patronal horrekin Lanbidearteko Akordio orekatu bat iristea posible zela, erreformen ondorio kaltegarriak mugatze aldera, hankasartze bat da.

**5.** Confebasken betoa ikusirik, ezinbestekoa da -hori izan da ELAren estrategia- bere kontrola hainbeste nabari ez den esparruak bilatzea, patronalaren estrategia hausteko. ELAk hala egin du Euskal Dendak-ekin egindako akordioan, Gipuzkoako adinekoen egoitzetan eta azken hiletan sinatu diren 100dik gora hitzarmen berrietan.

**6.** Lanbidearteko Akordioaren behin-behineko porrotaren ostean, ELAk dei egiten die gainerako sindikatuei edozein enpresetan gerta daitezkeen eraso guztiei aurre egitera. Deialdi honek helburu argi bat du, ahal dugun enpresa guztietan negoziazioa irekitzea hitzarmen kolektibo bat lortzeko.

**7.** ELAk ondorioztatu du Lan Harremanetako eta Babes Sozialeko Euskal Esparrua gaur bakarrik euskal sindikalismoaren zati batek defenditzen duela. Patronalak mespretxuz ikusten du (berarentzat espainiar esparrua errentagarriagoa izanik) eta Eusko Jaurlaritzak esparru laboral zein sozialean Madrilek erabakitakoa betetzen du. Gaur Lan Harremanetako eta Babes Sozialeko Euskal Esparrua mobilizazio eta proposamen politikorako ardatz bat da; bere xedea politikarekin bat egitea da, zinez aintzat har dezan. Neozentralismo eta neoliberalismo garai hauek kutsatu egin dute euskal klase politikoa (bere zati handi batek nahiago du patronalari aurre ez egin). ELAren irudiko, euskal esparruaren defentsa ere bada salatzea CCOOek eta UGTk espainiar estatuan egiten ari diren zentralizazio estrategia.

**8.** ELAk Eusko Jaurlaritzari exijitzen dio egiteko asmoa duen Inaplikazio Batzordean hitzarmenen aplikazioan salbuespenak izateko benetako oztopoak jar ditzala, eta berrikus ditzala ordezkartzan oinarritzen ez diren lobby patronalaren finantziario iturri guztiak, kontutan izanik lobby hori baita aitzindaria soziala den guztia suntsitzeko lanean.

**9.** ELAk berriro nabarmentzen du antolakuntzari lehentasuna eman behar zaiola. Bide bakarra dago pairatzen dugun patronal ezin doktrinalago eta liskartsuago honi gailentzeko: Enpresetako presentzia sindikal antolatua eta borroka. Gobernuen eta patronalaren eraso honi erantzuteko gauza izango bagara, langileek beren interes eta helburuak gauzatzeko bidean protagonista izan behar dute, antolakuntza indartuz.